XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

3759

166/2011 DEKRETUA, uztailaren 19koa, Estatuaren titulartasuneko artxiboak kudeatzearen eta jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan Estatutik zerbitzu eta eskumen berriak jaso direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011ko aurrekontuan kredituak sartzeko dena.

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bitartez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen da, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena arautzen da. Bada, dekretu horren 75. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak Estatutik zerbitzu eta eskumen berriak jasoz gero, zirkunstantzia horren ondoriozko obligazioei aurre egiteko, Aurrekontu Orokorretan beharrezko kredituak sartuko dira eta bai likidatzea aurreikusten diren eskubide ekonomikoak ere. Guztiarekin ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordioa azkenekoz argitaratu zenetik harako hogei egun baliodun igaro baino lehen, Jaurlaritzak onartu egin beharko du eskumen edota zerbitzu berriari dagokion aurrekontua, ekitaldia amaitu arteko aldiari dagokiona onartu ere.

2011ko ekainaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean, bi errege-dekretu argitaratu ziren: batetik, ekainaren 24ko 897/2011 Errege Dekretua, Estatuaren titulartasuneko artxiboak kudeatzearen arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko zena; eta bestetik, ekainaren 24ko 896/2011 Errege Dekretua, jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko zena. Gainera, 2011ko ekainaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, ekainaren 28ko 142/2011 eta 141/2011 dekretuak; hain zuzen ere, dekretu horien bitartez onartzen zen gai horiek direla-eta Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako akordioa.

Hortaz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Kulturako sailburuaren proposamenez, eta, 2011ko uztailaren 19ko bileran, Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ostean, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren 2011ko Aurrekontuan kredituak sartzea.

1.– 473.321,58 euroko gastu-egoera onartzen da, eta honako obligazioari aurre egiteko beharrezko zenbatekoaz osatzen da: Estatuaren titulartasuneko artxiboak kudeatzearen eta jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan Estatutik jasotako zerbitzu eta eskumenak jasotzearen ondoriozko obligazioak, hain justu ere.

2.– Jasotako eskumen berriei dagokien sarrera-egoera 473.321,58 eurokoa da.

3.– Sarrera- eta gastu-egoerak, aurreko paragrafoetan aipatuak, aldi honi dagozkio: 2011ko uztailaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra artekoa; eta hara hemen nola banatzen diren:

Gastuak: 4514 programa, «Historia eta arteko ondarea».

1. kapitulua	Pertsonaleko gastuak	473.321,58 euro
	GUZTIZKOA	473.321,58 euro

Sarrerak: «Foru Aldundien Ekarpenak» 9111 Programa.

4. kapitulua	Transferentziak eta diru-laguntzak, eragiketa arrunte-tarako direnak.	473.321,58 euro
	GUZTIZKOA	473.321,58 euro

2. artikulua.– Sartzetik datozen ondorioak.

1.– Ekonomia eta Ogasun Sailak integratu egingo du aurreko artikuluan aipatu gastu- eta sarrera-egoera Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011ko Aurrekontuan, betiere bidezko ondorio juridikoetarako, eta bereziki, kontabilitatea, exekuzioa eta geroztiko likidazioa egoki gauza daitezen.

2.– Martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko, foru aldundiek egin beharreko ekarpenak zehaztu eta baliabideak egoki banatzeko metodologia onartu zen; bada, 2007-2011 aldiari dagokionez, metodologia horretako 9. artikuluko 1. paragrafoan xedatzen denarekin bat etorriaz, Kupoaren metodologiaren ondoriozko dedukzio osagarria, zehazki, metodologia horretako 2. artikuluan zehaztua burutuko da, hain justu ere 2011ko ekitaldiaren ondorioetako eta 473.321,58 euroko zenbatekoarekin.

3.– Aurreko paragrafoan aipatu metodologiaren 9. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriaz, eta transferentzia berria finantzatzearren, foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari ekarpen zehatz eta osagarri bat egingo diote: 2011ko ekitaldiari dagokiona eta 473.321,58 eurokoa dena.

4.– Aurreko 2. eta 3. paragrafoetan zehaztu ondorioak data honetatik hara aplikatuko dira: aipagai ditugun arloetan, Euskal Autonomia Erkidegoari transferentzia egin zitzaion egunetik hara, hain justu ere.

3. artikulua.– Kupoan minorazio bat aldatzearen ondorioak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren 2007-2011 bosturtekorako kupoa zehazteko metodologiaren -urriaren 25eko 29/2007 Legeaz onartutakoaren- 11. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorriaz, 2011ko ekitaldirako Kupo likidoaren minorazioaren ondoriozko emaitza hauxe izango da: dekretu honetan goragoko artikuluko 2. paragrafoan zehaztu dedukzio osagarrian behin betiko zenbatzen dena.

2.– Dekretu honetan, goragoko artikuluko 3. paragrafoan aipatu ekarpen zehatz eta osagarrian ere zenbatuko da dena delako emaitza.

3.– Ekonomia eta Osasun Sailari baimena ematen zaio, beharrezkoa bada, aldaketak egiteko, artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz behar diren aldaketak alegia.

4. artikulua.– Legebiltzarrari komunikatzea.

Dekretu honen babespean egindako kreditu-kontsignazioari dagokionez, Jaurlaritzaren izenean, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakitun jarriko du Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek; baina 2011ko uztailaren 1etik harako ondorioak izango ditu, izan ere, transferentziak egun horretan gauzatu baitziren.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 19an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.